

# IKASTURTE HASIERAKO GURASO BILERA OROKORRA

---

## DBH 4

---

2022ko urria

# AURKIBIDEA

---

## 1. ANTOLAKETA PEDAGOGIKOA

- 1.1 DBH4. MAILAKO EZAUGARRIAK
- 1.2 ORDUTEGIAK
- 1.3 ARLOAK ETA IRAKASLEAK
- 1.4 ORIENTAZIO DEPARTAMENDUA ETA TUTORETZA PROGRAMA
- 1.5 PROIEKTUAK
- 1.6 EBALUAZIOA
- 1.7 LAN OHITURAK

## 2. ANTOLAKETA OROKORRA

- 2.1 IRTEERAK eta OSPAKIZUNAK
- 2.2 GURASO ETA IRAKASLEEN ARTEKO KOMUNIKAZIOA
- 2.3 ELKARBIZITZA
- 2.4 FUNTZIONAMENDU ARAUDIA
- 2.5 ESKOLA ASEGURUA

## 1.- ANTOLAKETA PEDAGOGIKOA

### 1.1 DBH4. MAILAKO EZAUGARRIAK

DBH 4. mailan ere, EKI proiektuak proposatutako eta Udarregi ikastolaren testuingurura egokitutako ikasleen irteera profila izango da helburu. Era berean, ikasleak unean bertan dituzten bizitzarako interes eta oinarrizko beharrei erantzun, eta etorkizunean garrantzitsutzat jotzen diren egoeretan moldatzeko prest egotea bilatuko da.

Honez gain, DBHko graduatu titulua lortzeak ere garrantzi handia izango du.

Eta amaitzen ari diren une honetan, hezkuntza-asmoei buruzko erabaki garrantzitsuak hartu beharko dituzte etorkizunari begira.

Honen inguruan ikastolako tutoreek eta orientazio departamenduak DBH bukatu ondoren dauden aukeren berri ikasleei azaltzen joango zaie kurtsoan zehar.

### 1.2 ORDUTEGIA

4A					
	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
8:25 9:20	Ekonomia/ Fisika eta Kimika	Kultura klasikoa Bio-geo Tekno 2	Gaztelera	Matematika	Ekonomia/ Fisika eta Kimika
9:20 10:15	Plastika Teknologia Sakontze Frantsesa	Sakontze Musika Plastika Tekno 1	Matematika	Gaztelera	Matematika
	Jolasgaraia	Jolasgaraia	Jolasgaraia	Jolasgaraia	Jolasgaraia
10:40 11:35	Euskara	Euskera	Gorputz hezkuntza	Ingelera	Euskara
11:35 12:30	Kultura Klasikoa/ Biologia Geologia	Ingelesa	Gorputz hezkuntza	Euskara	Kultura Klasikoa/ Biologia Geologia
	Bazkaria	Bazkaria	Jolasgaraia	Bazkaria	Jolasgaraia
14:30 15:30	Ingelera	Gizarte	Gizarte	Kultura Klasikoa/ Biologia Geologia	Gaztelera
15:30 16:30	Gizarte	Gaztelera	Euskara	Tutoretza	Ingelera

4B					
	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
8:25 9:20	Ekonomia/ Fisika eta Kimika	Kultura klasikoa Bio-geo Tekno 2	Matematika	Gaztelera	Ekonomia/ Fisika eta Kimika
9:20 10:15	Plastika Teknologia Sakontze Frantsesa	Sakontze Musika Plastika Tekno 1	Gaztelera	Matematika	Euskara
	Jolasgaraia	Jolasgaraia	Jolasgaraia	Jolasgaraia	Jolasgaraia
10:40 11:35	Etika	Ingelesa	Euskara	Euskara	Matematika
11:35 12:30	Kultura Klasikoa/ Biologia Geologia	Euskera	Gizarte	Ingelera	Kultura Klasikoa/ Biologia Geologia
	Bazkaria	Bazkaria	Jolasgaraia	Bazkaria	Jolasgaraia
14:30 15:30	Gizarte	Gaztelera	Gorputz hezkuntza	Kultura Klasikoa/ Biologia Geologia	Ingelera
15:30 16:30	Ingelera	Gizarte	Gorputz hezkuntza	Tutoretza	Gaztelera

### 1.3 ARLOAK ETA IRAKASLEAK

TUTOREAK	OLATZ MARTIN (4A) MIREN LOITI (4B)
GIZARTE ZIENTZIAK	MIREN LOITI
GORPUTZ HEZIKETA	EÑAUT SILBETI
GAZTELERA	YOLANDA INTZIARTE
EUSKARA	NEREA FRANKO
INGELERA	OLATZ MARTIN
MATEMATIKA	JOXE MARI GONZALEZ
ETIKA	4A: NEREA PETXARROMAN 4B: MIREN LOITI

HAUTAZKO ARLOAK	
BIOLOGÍA y GEOLOGÍA	JOXEMARI GONZALEZ
EKONOMIA	NEREA MAYOZ
FISIKA eta KIMIKA	JOANES TXUEKA (EÑAUT LASARTEren ordez)
KULTURA KLASIKOA	ANDER IZETA
TEKNOLOGIA I	JON M. LARRAÑAGA
PLASTIKA	MERTXE PECHARROMAN (NEREA ZINKUNEGIren ordez)

## 1.4 ORIENTAZIO-DEPARTAMENDUA ETA TUTORETZA PROGRAMA

Ikasle guztiei zuzenduriko laguntza-prozesu jarraia eta sistematikoa da, arreta berezia jartzen da prebentzioan eta ikaslearen garapen pertsonalean.

DBHn orientazio departamenduko arduraduna MILA CASTY da eta DBHko laguntza espezialista ARANTXA COTADO izango da.

Departamenduaren **eginkizunak** honako hauek dira:

- Tutore/irakasleen eskakizunak jaso eta premiak identifikatu.
- Eskabideak baloratu eta zuzeneko esku-hartzeak gauzatu.
- Gurasoekin aholkulari lanak bete.
- Tutoretza-programak prestatu.
- Ikasleen lanbide orientazio programa bideratu.
- Ikasleen lanbide orientazio elkarrizketak egin.

### Tutoretza plana

Tutoreak astean ordu bat izango du bere ardurapean dauden ikasleekin egoteko. Saio horietan ikasle bakoitzaren jarraipen akademikoaz gain, orientazio departamenduarekin batera eraturako gaiak landuko ditu.

#### 1.FAMILIAREKIN

- 1.1. **Informazio** bilera orokorra
- 1.2. Ikasleen egoeraz informatzeko bilerak
- 1.3. **Drogamenpekotasun** programaren inguruko informazioa
- 1.4. **Hezkidetza** programaren inguruko bilera ARREMANITZ taldeko arduradunekin.
- 1.5. **DBH bukatu ondorengo ikasketei** buruzko bilera orokorra
- 1.6. DBH bukatu ondorengo **ikastetxe desberdinen eskaintzari** buruzko bilera orokorrak

#### 2. IKASLEEKIN BURUTZEN DIREN GAIAK

- 2.1. **Harrera eguna**
- 2.2. **Osasun programa:** Drogamenpekotasunaren inguruko programa IZAR ARREGIren eskutik.
- 2.3. **Ikasturte bukaerako irteeraren antolaketa**
- 2.4. **Testak**
- 2.5. **Orientazio programa.** DBH3n hasitakoaren jarraipena.
- 2.6. **Elkarbizitza** gaia dela eta, ARREMANITZ taldeko adituen eskutik Hezkidetza programa.
- 2.7. **Azaroak 25** eta **Martxoak 8**ko egunen inguruko lanketa.
- 2.8. **Ikasleekin bakarkako bilerak** beren ikaste-prozesuaren jarraipena egiteko.

## 1.5 PROIEKTUAK

### IKASTOLA EREDUAREN HEZKUNTZA MARKOA

Ikastolon Curriculumaren, Euskal Curriculumaren garapena da, eta berau osatzeko agindua jaso genuen bere garaian: *“Konpetentzietan Oinarritutako Hezkuntzaren ikuspegitik Euskal Curriculumaren garapena gauzatzea, etapa eta arlo guztientzat marko komunean oinarrituz”*. (Ikastolak orain eta gero. Ikastolen VI Bizarra, 2009)

Beraz, KONPETENTZIETAN OINARRITUTAKO HEZKUNTZA da IKASTOLA EREDUARI, 0-20 urte bitarte eta **etapaz etapa lotura** eta **koherentzia** emango diona.

Euskal Curriculumaren garapenerako gure curriculum diseinuak dituen **EZAUGARRI BEREIZGARRIAK** hurrengo elementuekin osotzen dira:

- Euskal curriculumean oinarrituta.
- Ikaslearen irteera profilean oinarrituta.
- Integrazioaren pedagogian oinarrituta.
- Oinarritzko konpetentzia orokorrak arlo guztietan txertatuta.
- Euskararen ardazturiko planteamenduan, hizkuntzen trataera integral eta integratua garatzen du.
- Konpetentzia digitala arlo guztietan txertatuta.
- Ikaskidetzan oinarritutako esku-hartzea bultzatzen du.

Udarregi Ikastolak, Euskal Herriko gainerako ikastolekin partekatzen duen Hezkuntza Ereduarekiko eta Marko Pedagogikoarekiko koherentzian lan egiten du.

### Udarregi ikastolako proiektuak

- **0-6 Marko Pedagogikoa:** Ikastolen Elkartek azken urtetako lanketaren ondorioz eta gaur egungo errealitatea aztertuz sortu duen Marko Pedagogikoa berria da hau. Konfiantzaren Pedagogiarekin bat egiten du eta aurrez egindako lanketekin bat dator. Dokumentu honek euskarri berri bat eskaintzen digu eta lanketarako bidea zabaldu. Konpetentzietan oinarrituta dago.
- **Konfiantzaren Pedagogia:** Haurren ikuspegi berri baten oinarritutako pedagogia da hau. Konfiantzan oinarrituta eta haurrak garapenerako duen joera naturala eta norberaren erritmoak errespetatzen dituena. Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzara doazen ikasleak hobeto egokitu daitezten, LH 1-2 mailatan aldaketa ezberdinak burutzen ari gara ziklo bezala erantzuteko behar horri.
- **EKI:** Euskal curriculumean; Konpetentzietan eta Integrazioaren pedagogian oinarritutako proiektua. Irakaskuntzaren mundua hartzen ari den norabide berriari eusten dio. 0-6 Marko Pedagogikoa eta Blok Tac-en gisara, konpetentzien garaperanari zuzenki lotutako egitasmoa dugu. 18-19 ikasturtetik LH5etik aurrera garatuko da.
- **KiVa:** Eskola jazarpenari aurre egin eta saihesteko proiektu finlandiarra. Emaizta ikusgarriak izan dituzte bertan eta Ikastolen Elkartek akordio esklusiboa lortu du programa horren garapenerako.
- **Agenda 2030:** Ingurumenarekin lotura zuzena duten gaien lanketa bideratzen du proiektu honek. Udalaren Tokiko agenda 2030 egitasmoari lotuta dago, eta udalarekin harremanetan bideratzen da.
- **Ikasteko Irakurri:** Helburu nagusia ikasleek irakurketarako estrategiak ikas ditzaten helburu izango duen proiektua.
- **IK/KI:** Ikaskuntza Kooperatiboa / Kooperatzen ikasi, azken urteetan Udarregin indar handia hartu duen egitasmoa da. Lankidetzeta eta talde lana sustatzeko proiektua da.

- **Eleanitz:** HH 4tik DBH4ra eragina duen proiektua. Bertan, euskara, gaztelera, ingelesa eta frantsesa txertatuta daude. Hezkuntza eleanitzaren aldeko apustuari erantzuten dion proiektua.
- **Elkarbizitza:** Ikastolako komunitatean baitan sortzen diren gatazken kudeaketa bideratzen da bertatik. Azken urteetan, udalarekin lanketan, hezkidetzaren inguruko gaiak ere joratu dira bertan.
- **Hizpro:** Euskararen sustapena eta erabilera bultzatzera bideratutako proiektua da. Euskararen eguna, hizkuntz errealitateko neurketak, gurasoen ikastaroak,... bideratzen dira.
- **Baso eskola:** LHko 1.zikloan martxan jarriko dugun proiektua da. Gure inguruko elementu naturalak ezagutzeaz gain, naturan eta naturaz gozatzeko helburua duena.

## 1.6 EBALUAZIOA

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, ikasleen ebaluazioa banakatua, jarraitua eta curriculumeko irakasgai eta arloetan berezia izango da, oinarrizko konpetentziak aintzat hartuta. Ikasleen ebaluazioa hezitzailea izango da, eta irakaskuntza nahiz ikaskuntza prozesuak hobetzeko tresna izango da.

### Ohiko ebaluazioa

Unitate bakoitzean markatutako helburuen inguruan finkatzen dira ebaluazio- irizpideak. Ikasleari ebaluazioaren hasieran ezagutaraziko zaizkio arloko ebaluazio-irizpideak eta horien balioa kalifikaziorako.

**Errekuperaketen prozedura:** Ikasleak ebaluazioren bat gainditu gabe uzten badu, arloaren arabera, bigarren deialdirako edo errekupeziarako aukera izango du ebaluazioaren ondoren.

- 1.ebaluazioa errekupeartzeko: abendua-urtarrila bitartean
- 2.ebaluazioa “ : martxoa-apirila bitartean.
- 3.ebaluazioa “ : ekainean.

### Ebaluazio saioak

1.EBALUAZIOA	Abenduak 9
2.EBALUAZIOA	Martxoak 17
3.EBALUAZIOA	Ekainaren 23

Ekaineko ohiko saioen datak honela izango dira:

OHIKO AZTERKETAK	Ekainaren 20 eta 19an
OHIKO AZTERKETEN EMAITZAK	Ekainaren 28an
ERREKLAMAZIO EGUNA	Ekainaren 29an

**Jarraipen bilerak:** Ebaluazio bakoitzaren ondoren tutoreak hitz egingo du gainditu gabeko arloak izan dituzten ikasleen gurasoekin, baita komenigarria den beste kasuetan ere.

## **Indartze neurriak**

Irakasleak eta tutoreak ikasle baten emaitzak egokiak ez direla erabakitzen badute, errefortzua egiteko proposamena egingo diote ikasleari.

## **Mailaz igarotzea**

- Etapako maila batetik bestera igarotzeko erabakia irakasle guztien artean hartuko da.

## **Aurreko ikasturtean gainditu gabeko arloak**

Ikasleren batek aurreko urteko arloren bat gainditu gabe izanez gero, arloko hezkuntza indartze neurriak jarriko zaizkio eta hor jasotako gutxienezko helburuak ikasturte berrian gainditzeko aukera izango du. Gaindituko ez balu, maiatzean gainditzeko beste aukera bat izango du azterketa edo lanen bidez.

## **Azterketak, frogak berrikusteko prozedura**

Ikasleek edo beren guraso edo ordezkari legalek eskubidea dute euren kalifikazioan eragina izango duen edozein azterketa edo proba idatzi zuzenduta eta kalifikatuta ikusteko.

Argibideak tutoreari edo arloko irakasleari eskatuko zaizkio zuzenean, aste bateko epe barruan.

Azterketak ezingo dira ikastolatik atera. Ikusi nahi izanez gero, dagokion irakaslearen baimena beharko litzateke. Beti ere, azterketa horiek ikastetxean jasoko dira.

## **Erreklamazioak**

Ohiko eta aparteko deialdietan kalifikazioei buruzko erreklamazioak 2 eguneko epean egingo dira, eta idatziz ikasketa buruari aurkeztuko zaizkio.

## **DBHko graduatu-titulua**

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua eskuratzeko, amaierako ebaluazioa gainditu beharko da, baita etaparen amaieran 10etik 5 edo gehiagoko kalifikazioa lortu ere.

## **1.7 LAN-OHITURAK**

- **Denboraren antolaketa:** Ikasketei modu egokian erantzun ahal izateko ikasle bakoitzak bere denbora antolatu behar du. Denbora hori ikasle bakoitzaren arabera aldakorra da, baina hurrengo eguneko arloen prestaketari tarte bat eskaintzea aholkatzen dugu **egunero**. Tarte hau finkoa bada, hobe. Denbora hau pertsonala eta erreala izan behar du (ez egin bi ordutakoa, azkenean ordu-erdi soilik izango bada)
- Eskolaz kanpoko ekintzak plangintza honetan sartu behar dira.
- **Lanerako lekua:** Mahai baten aurrean ikastea komeni da, eta beharrezkoa den materiala eskuarteaz izatea soilik.
- **Agenda** tresna eraginkorra da norbere antolaketa bideratzeko eta **etxerako lanak** egunean eramateko. Epe luzerako lanak izaten dituztenean ere plangintza zorrotza eramatea komeni da.



- Arloetan lantzen diren **ikasketa teknikak** erabiltzen saiatu (hiztegia, azpimarraketa, ideia nagusiak, laburpen eta eskemak,).
- **Teknologia berrien erabilpena:** ordenagailua lanerako tresna bihurtu da, baina erabilpen egokiaren garrantziaz jabetu behar dugu:
  - **Etxeetan:** ordenagailuaren kokapena, erabileraren jarraipena, egiten ari direnaren ezagutza gurasoek ezagutzea komeni da, tarteka egiten ari direnaz galdetuz eta jarraituz.
  - **Ikastolan:** ikasleek beraien Chromebookak erabiliko dituzte eman zaizkien jarraibideen arabera.
- Adin hauetan ere komeni da **gurasoak** seme-alabak zertan ari diren begiratzea, galdetzea eta interesa agertzea.

## 2.- ANTOLAKETA OROKORRA

---

### 2.1 IRTEERAK eta OSPAKIZUNAK

Irteera pedagogiko zein ospakizunetako datak jakiterakoan adieraziko zaizkizue. Ikasturte bukaerako data: KATALUNIA. Apirilaren 18-20 (21 jai).

### 2.2 GURASO ETA IRAKASLEEN ARTEKO KOMUNIKAZIOA

- **Guraso BILERA OROKORRA:** Ikasturte hasieran egiten da. Tutore eta familiekin lehen hartu emana gauzatzeko egiten da.
- **BAKARKAKO BILERAK:** Lehen ebaluaketaren ondoren eta ekainean tutoreak familiak deitzen ditu bilera batera.
- **ORIENTAZIO-BILERAK:** 3. hiruhilekoan DBH3. eta DBH4. mailetako gurasoekin orientatzaileak egiten ditu.

Honetaz gain, ikaslearen familia edo arduradun legalak Ikastetxearekin harremanetan jar daiteke edozein unetan telefonoz edo posta elektronikoz, beharra ikusten dutenean. Presazko gaia ez bada, posta elektronikoa da komunikazio biderik erabiliena.

4A: OLATZ MARTIN: [omartin@udarregi.eus](mailto:omartin@udarregi.eus)

4B. MIREN LOITI: [mloiti@udarregi.eus](mailto:mloiti@udarregi.eus)

PARTEKATUA: JOXEMARI GONZALEZ: [jmgonzalez@udarregi.eus](mailto:jmgonzalez@udarregi.eus)

Beste edozein irakasle edota orientatzailearekin harremanetan jartzeko aurretik aipatutako bide berberak erabil daitezke.

### 2.3 ELKARBIZITZA ARAUDIA

Ikastolako helburuetako bat elkarbizitza giro ona suspertzea da. Horretarako ikastolak ikasleek jasoko duten prestakuntza akademiko eta gizalegezko egokiak bermatu behar ditu. Bide horretan, araudia, bizikidetzaren erraztuko duen tresna bezala hartu behar da.

Araudi hori indarrean dagoen *Ikasleen Eskubide eta Betebeharren Araudian* oinarritzen da.

## 2.4 FUNTZIONAMENDU ARAUDIA

### 1.-ASISTENTZIA:

- Klaseetara etortzea derrigorrezkoa da ikasle guztientzat.
- Klasera etorri ezean, gurasoek **Alexia** aplikazioaren bidez justifikatuko dute.
- Edozein egoeratan justifikatu beharko da; mediku-orduak, gaixotasunak, puntualtasun faltak nahiz ibilaldi edota bestelako proiektuetan ez duela parte hartuko adierazteko.
- Sarreretan txirrinak 5 minutu lehenago joko du, ikasleak eta irakasleak garaiz gelan egon daitezen. Ikaslea klaseetara berandu sartuko balitz, bere atzerapenaren arrazoia ageririk ekarri ezean, irakasleak hutsegitearen berri emango du Alexiaren bidez.

### 2.- AZTERKETETARA EZ AGERTZEA

- Ikasleak gurasoen justifikazioa sinatuta ekarri beharko dio arloko irakasleari huts egindako azterketa beste egun batean egiteko.

### 3.- TRESNAK, JANTZIAK...

- Soinketarako arropa egokia ekartzeko eskatuko da eta ospakizunetan, hala eskatuz gero, baserritar jantzia janztea.

### 4.- ATSEDENALDIAK

- Atsedenedietan ikasleak aurrez izendatutako eremuetara joango dira. Eremu horietatik kanpo ikasleek ezin dute irten irakasle arduradunaren baimenik gabe. Herrira ezin dute jaitsi.

### 5.- IKASTETXEKO INSTALAZIOEN ERABILPENA

- Guztioi dagokigu ikastola egoki erabiltzea eta zaintzea. Ikasgelak eta beren edukia txukun eta garbi mantendu behar ditugu.
- Materialaren edo instalakuntzen erabilpen ez egokiak eragindako kaltearen ardura, egileak edo egileek, eta horiek ezean taldeak berak hartu beharko du gastuak ordainduz.

### 6.- TELEFONO MUGIKORRA EDO SMARTWATCH

- Debekatuta dago gailu horien erabilpena ikastolan. Ikastola ordutan itzalita edukiko dira, jolas-garaia barne.
  - ✓ Araua hautsiz gero, irakasleak gailua kendu egingo dio ikasleari eta tutorearen esku jarriko du. Gurasoei itzuliko zaie eskura.
- Irteeretan gailu horiek, ez eramatea eskatzen da, egonaldian sor daitezkeen arazoak saihesteko.
- Ikastolara ekartzen den materiala ikaslearen ardurapean dago.
- Gelako lanetarako mugikorra ekarri behar denean, **aurrez jakinaraziko** zaio ikasleari.
- **Sare sozialen erabilera.** Eguneroko lanean eta ikastolako bizitzan ikasleek horien beharrik ez dutenez, erabiltzea debekatuta dago eskola orduetan. Ikasleek

ikastolan bertan sortzen zaien e-posta kontua soilik erabiliko dute.  
Hala ere, tresna horiek ikasleen eskuetan daude haien egunerokotasunean eta horien erabilera positiboa bultzatu behar da (Pantallas Amigas).  
Lanketa hori ikastolan ematen bada ere, ezinbestekoa da irakasleek egiten duten jarraipena gurasoek ere egitea, ikasleak adin txikikoak direnez, gurasoak baitira erabilera horren erantzule.

## 2.5 ESKOLA ASEGURUA

Ikasle guztiak eskola aseguruaren onuradunak dira.

Istripuren bat gertatuz gero nola jokatzeko dugun:

- Istripua larria ez bada ikastolako botikinarak erabiltzen dira.
- Istripua gertatu eta medikuaren beharra ikusiz gero, gurasoek deituko zaie seme-alaba **Poliklinikara** eraman dezaten.
- 

DBHko ikasleek NAN agiria eduki behar dute.